



Euskaldun bai Orienten

Goizeko zazpiak ziren. Gertakizun hau Donostian gertatu zen. Josu egunero bezala lanera zihoan. Espia zen eta bere nagusiak deitu zion telefonoz, azkar joateko esanez.

—Nagusi, hemen nago —esan zuen, ahal zuen bezala arnasa hartuz—. Ahal izan dudan azkarren etorri naiz.

Orduan, nagusiak oso urduri, gertatu zena kontatu zion pausuz-pausu.

—Ba al dakizu nor den Yoshi Sakamoto?— galdetu zion.

—Bai noski, Orienteko enpresarik handienetako nagusia, erantzun zion. Zer gertatu da ba?

—Ba, goizeko seiak ziren. Lanera heldu eta mikro-txip bat —oso inportantea— ikustera nindoala Yoshi Sakamotoaren bi matoi etorri dira eta kendu egin didate.

—Lasai —esan zion—. Neuk kenduko diet eta ekarriko dizut. Zer dauka mikro-txipak?

—Ba... —hasi zen esaten.

—Ez! —ohiukatu zion—. Ezin dut galdu denborarik! Ikusiko dut bueltan!

Hau esan eta autoa hartu eta aireporturantz abiatu zen. Heldu bezain laster autotik jaitsi eta lehenengo hegazkina hartu zuen.

—Beno —pentsatu zuen—. Bost ordu barru Tokion izango naiz.

Eta momentu horretan lotan geratu zen. Esnatu zenerako Tokion zeuden eta bi aeroneska zeuden esnatu nahian.

—与子鴨主事*— esan zion batek.

—Eh, bai noski erantzun zuen harriturik ezer ulertu gabe.

Hegazkinetik jaitsi eta autoa alokatu ostean bidean jarri zen.

—Gose naiz esan zuen berarentzako. Hanburgesa bat jatera joango naiz.


Orduan 四年九九二 izeneko hanburgeseria batera jo zuen. Han izen arraroko hanburgesa eskatu zuen (* 滑 hain zuzen).

—Jaten ari zela bi gizon sartu ziren. Yoshi Sakamotoaren lagun batzuk ziren.

—Jarraituko diet hanburgesa bukatu ondoren, esan zuen berekiko. Horrela lortuko dut jakitea non dagoen beraien enpresa.

Ordu erdi pasa ondoren haien enpresara heldu zen. Enpresak 50 solairu zituen eta Tokio erdian zegoen.

Josu bere anoraka jarri eta oharkabeko lehenengo sarreratik pasatu zen.



Guztia ongi joan zen azken ateraino. Azken atea zabaldu eta begiratu zer: han zeuden Yoshi Sakamotoen gizon guztiak itxaroten.

—Ez dut uste festa edo gai honetara gonbidaturik nagoenik!— esan zuen.

Hau esan eta korrika ihesari eman zion. Baina beraren atzetik guztiak irten ziren. 30 solairu igon ondoren, Josuk hau pentsatu zuen:

—Hemen ez naute harrapatuko inoiz.

Hau esan eta eskumatik 25 gizon etorri zitzaizkion. Orduan saiatu zen ihes egiten ezkeretik eta beste 25 gizon zetozen.

Azkenik teilatuan zegoen lehio baten kristala apurtu, igon, eta poltsikoan zuen gas-bonba bat bota zien. Hortik bost segundutara guztiak geratu ziren lotan. Josu berriro jaitsi eta Yoshi Sakamotoen bulegorantz abiatu zen. Heldu zenean zarata sartu gabe kutxa zabaldu, mikrotxipa hartu, eta ahal izan zuen azkarren irten zen. Ordurako esnaturik zeuden Yoshi Sakamotoen gizonak, eta Josuren bila hasi ziren.

Josuk bitartean autora zihoala hauxe entzun zuen:

—四月三九日十二月九 esan zuen gizon batek.

Orduan begirada atzerantza jarri eta... Han zeuden guztiak bere atzean.

—Hobe ahalik eta azkarren hemendik banoa, pentsatu zuen.

Orduan, autoa hartu eta 100 kilometro orduko irten zen aireporturantz. Baina Yoshi Sakamotoen gizonak bere atzetik irten ziren.



Bi ordu hiritik bueltak ematen ihardun ondoren, Josuk galdu egin zituen.

—Azkenik libre naiz, esan zuen eta gainera mikro-txipa neure menpean dago.

Aireportura heldu eta han agertu zen Yoshi Sakamoto.

—田丸 月一丸—esan zion Yoshik.

—Ez dizut ezer ulertzen —esan zion Josuk— agur eta jan «yogur».

Eta korrika irten zen hegazkinerantz.

Zortzi ordu beranduago han zegoen berriro Donostian. Gaueko 12ak ziren. Josu bulegorantz abiatu zen.

—Kaixo nagusi, hemen nago esan zuen.

—Ha, bazen ordua! erantzun zion, badakarzu mikro-txipa?

—Bai, esan zion, esaidazu orain: Zer dauka?

—Etorri nirekin eta ikusi, erantzun zion.

Orduan ordenagailu gelara joan, mikro-txipa ikusi eta... «Hook» filmea zen.

—Horretarako bidali nauzu mikro-txiparen bila!! esan zion Josuk haserre «Hook» filmea ikusteko!!!!

—Ez zenidan bukatzen utzierantzun zian.

—Ha, bai, noski!! erantzun zuen haserre, orain aitzakiak bilatu!!

Hau esanda, haserre, bere etxera joan zen eta lanbidea aldatzea erabaki zuen.

■ *Ezer esan baino lehen,
entzun besteak esan behar duena*